



GIZARTE-PERTZEPZIOA ETA JOKOAREN BALORAZIOA EUSKADIN

Emaitzen aurrerapena

2022



JOKOAREN
EUSKAL BEHATOKIA
OBSERVATORIO VASCO
DEL JUEGO



Aurkibidea

1. Aurkezpena	000
2. Emaitzen aurrerapena	000
2.1. Ausazko jokoei buruzko pertzepzioa eta iritzia	000
2.2. Jokoarekiko jarrerak	000
3. Fitxa teknikoa	000

Grafiko eta taulen aurkibidea

Grafikoak

1. grafikoa. Azken urtean jokatu duten biztanleak (%)	000
2. grafikoa. Ausazko jokoak arazo bat dira euskal gizartearentzat (%)	000
3. grafikoa. Euskal gizartearen iritzia zuzeneko jokoari eta online jokoari buruz (%)	000
4. grafikoa. Esango nuke, euskal gizartean, gizonek eta emakumeek berdin jokatzen dutela? (%)	000
5. grafikoa. Gazteek eta adineko pertsonak berdin jokatzen dute? (%)	000
6. grafikoa. Non kokatu beharko lirateke zorizko jokorako lokalak? (%)	000

Taulak

1. taula. Azken 12 hilabeteetan jokatu duten pertsonak, sexuaren, generoaren eta adinaren arabera (%)	000
2. taula. Azken 12 hilabeteetan egin dituzten ausazko jokoak, sexuaren eta adinaren arabera (%)	000
3. taula. Ausazko jokoak arazo bat dira euskal gizartearentzat, sexuaren eta adinaren arabera (%)	000
4. taula. Joko presentzialari buruz euskal gizarteak duen iritzia, sexuaren eta adinaren arabera (%)	000
5. taula. Euskal gizartearen iritzia online jokoari buruz, sexuaren eta adinaren arabera (%)	000
6. taula. Gizonak eta emakumeak berdin jokatzen dute? (sexuaren eta adinaren arabera %)	000
7. taula. Gazteak eta adineko pertsonak berdin jokatzen dute? (sexuaren eta adinaren arabera %)	000
8. taula. B makinaren kokapena sexuaren eta adinaren arabera (%)	000
9. taula. Kasinoaren kokapena sexuaren eta adinaren arabera (%)	000
10. taula. Aretoen kokapena sexuaren eta adinaren arabera (%)	000



1.

Aurkezpena




Aurkezpena

Ausazko jokoak gai errepikakorrek dira eztabaida publikoan, arrazoi askorengatik eta batez ere azken urteetan. Egoera hori, batez ere, online modalitateak agertu eta arautzeari edo modalitate berri horren aurrean tradizionalki presentzialak izan diren jokoak berritu eta egokitzeari zor zaio. Hala, eremu horri buruzko jarrerak eta hausnarketak ugaritu egin dira. Alde batetik, ausazko jokoak eta apustuak, beste edozein bezala, modu arduratsuan egin behar diren aisialdi-modu bat baino gehiago direla uste dutenak daude, eta, bestetik, praktika hori ondorio sozial eta indibidualak eragiten dituen gizarte-problematikatzat hartzen dutenak.

Jokoaren Euskal Behatokiak (JEB) hainbat ikerketa egin ditu ausazko jokoen eta apustuen arloan euskal gizarteari eragiten dion errealitate soziala ezagutzeko eta horren berri emateko. Lehenengoa, *Euskal herritarren pertzepzio soziala eta joko-ohiturak 2019*, izan zen IKEI Research & Consultancy egindakoa. 2020tik aurrera, Behatokia Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Soziologia eta Gizarte Langintza Sailarekin lankidetzan hasi zen, eta *Jokalarien prebalentzia, ohiturak eta profilak Euskadin 2020* txostena argitaratu zuen. Txosten horren helburua euskal herritarrek ausazko jokoarekin duten harremana erradiografizatzea zen, eta hainbat gai jorratu zituen, hala nola profilak, sozializazio-prozesua edo jarduera horretatik sor daitezkeen arazoak. 2021ean, aurretiazko ikerketan lortutako datuen ondorioz, biztanleria heldu gazteenaren arreta-zentroan jarri behar izan zen, eta horren emaitza *Gazteria eta jokoak 2021* ikerketen islatu zen.

Testuinguru horretan, eta gizarte-diskurtso hain polarizatuekin, lehen esan bezala, euskal gizarteak fenomeno horri buruz duen pertzepzioa ezagutu nahi izan da, bizitako bilakera besteak beste. Emaitza gisa, *Euskadiko ausazko jokoen pertzepzio soziala eta balorazioa 2022* txostena lortuko da. Lan honetan, Euskadin bizi diren pertsonen pertzepzioa eta jarrera ezagutzeaz gain, beste gai batzuk ere aztertu nahi izan dira, hala nola joko-ohiturak edo Jaurlaritzak jokoaren arloan duen kudeaketa eta hartutako neurrien balorazioa. Gainera, IKEIk egindako lanari esker (EAEko 2019ko herritarren pertzepzio soziala eta joko ohiturak), azterketa konparatibo bat egin ahal izango da galderetako batzuetan.

Emaitzen aurrerapen hau azken hilabeteetan egindako azterlanetik dator. Bertan, 1.200 inkesta egin zaizkie kalean adinez nagusi diren biztanleei, eta 400 banatu dira lurralde historikoen arabera.



2.

Emaitzen aurrerapena

Emaitzen aurrerapena


Hurrengo paragrafoetan, *Gizarte-pertzepzioa eta ausazko jokoen balorazioa 2022* azterlanaren datu nagusietako batzuk aurkezten dira. Aurrerapen honetan, gai desberdinak jorratzen dituzten bi blokeetan bildutako galdera desberdinen erantzunak jasotzen dira. Lehenengoak pertzepzio orokorrari egiten dio erreferentzia, eta hainbat galdera jasotzen ditu, hala nola jokoaren eta ausazko jokoen balorazioa edo hori problematikotzat jotzen den.

Bigarrenaren kasuan, neurri batzuekiko jarrerak edo sexuen eta adinen arteko portaerei buruzko iritzia agertzen dira. Hain zuzen ere, bi aldagai soziodemografiko horiek erabiliko dira emaitzak kontrastatzeko eta lehen desberdintasunak detektatzen saiatzeko.

2.1. Ausazko jokoei buruzko pertzepzioa eta iritzia

Lehen puntu honetan, oso interesgarria da euskal herritarrek ausazko jokoei buruz duten pertzepzioa ezagutzea, bai oro har, bai esparruka. Horrela, zeharka bada ere, lehen hurbilketa bat egiten da eztabaida publikoaren egungo egoerara. Beraz, *EAEko biztanleen % 76,6k aitortu du azken 12 hilabeteetan jokatu duela* (1. grafikoa). 2019an egindako Pertzepzioen azterketarekin alderatuta, COVID-19aren ondoriozko egoeraren aurretik, tasa 10 puntu igo da. Urte hartan, % 67,3k aitortu zuen azken urtean jokatu zuela. Aurreko azterlanetan erakutsitako emaitzak berresten dira, non agerian geratzen den jokoak euskal gizartean duen presentzia.

1. grafikoa. Azken urtean jokatu duten biztanleak (%)



Hala ere, datu horrek ñabardura bat eskatzen du gerora, bi aldagai soziodemografiko klasikotan oinarrituta: sexua eta adina. Aurreko txostenetan ikusi den bezala, biztanle-talde guztiek ez dituzte joko-dinamika berak. Emakumeen

Emaitzen aurrerapena

eta gizonen arteko desberdintasunei dagokienez, kasu honetan nolabaiteko antzekotasuna antzematen da. Emakumeen % 75,4k aitortu zuen azken urtean jokatu zuela, eta gizonek, berriz, % 77,9k. Beraz, 1,6 puntuko aldea ez dirudi estatistikoki esanguratsua denik. Bestalde, eta aldeaz aurreko ikerketen ildotik, adinaren arabera aldea daude. Biztanleria-talde gazteena (18-29 urte) da jokalaria gutxienez dituen (% 55,2). Tarteko adin-tartean direnak (45-64 urte) jokalarien ehuneko handiena (% 85,6) dute. Azkenik, zaharrenek (65 urtetik gorakoek) batezbestekoari eusten diote, % 76,6rekin.

1. taula. Azken 12 hilabeteetan jokatu duten pertsonak, sexuaren, generoaren eta adinaren arabera (%)

		Azken 12 hilabeteetan jokatu dute
Sexua	Gizonak	77,9
	Emakumeak	75,4
Adin-taldea	18-29 urte	55,2
	30-44 urte	73,3
	45-64 urte	85,6
	65 urte baino gehiago	78,6
Guztira		76,6

Aurreko puntuan aipatutakoaren idotik, ezin da ukatu jokoaren aniztasuna eta horien modalitateak, eta, beraz, beharrezkoa dela identifikatzea zer arreta-maila jasotzen duen bakoitza euskal herritarrengandik. Ikusi daitekeen moduan, biztanleriaren aukeraketa ere desberdina da gizarte-talde desberdinen artean, eta, era berean, disimilitate horiek beste zalantza batzuen azalpen gisa balioko dute. Aurrerago ikusiko den bezala (2. Taulak) alde horiek azaltzeaz gain, berretsi egiten da Loteria Nazionala dela gizartean gehien hedatuta dagoen jokoak, kasuen % 62,6rekin. Bestalde, joko hori da aukeratuena emakumeen artean (% 66,6) eta adin handieneko bi taldeetako pertsonen artean (45 urte baino gehiago % 73,4 eta 65 baino gehiago % 70). Eskema hori bera errepikatzen da beste joko presentzial tradizional batekin, hala nola ONCERen kupoiarekin, % 17, % 21,3 eta % 18,1eko ehunekoekin, aurreko aldagai bakoitzari emandako ordenan.

Bestalde, nahiz eta Loteria (% 29,9) izan gazteen artean ehuneko altuena duena, horien artean kirol-apustuek ezartzen dute puntu bereizgarria. Apustuen modalitatea edozein dela ere (aurrez aurrekoa eta online), apustu horiek % 10 inguruko tasak dituzte. Ehuneko hori bera nabarmen jaisten da adinean aurrera egin ahala, eta % 1era ere ez da iristen aztertutako kolektibo zaharrenean artean.

Emaitzen aurrerapena


2. taula. Azken 12 hilabeteetan egin dituzten ausazko jokoak, sexuaren eta adinaren arabera (%)

	Azterketa	Sexua		Adin-taldea			
		Gizona	Emakumea	18-29 urte	30-44 urte	45-64 urte	65 urte baino gehiago
Lotería Nacional	62,6	58,2	66,6	29,9	57,3	73,4	70,0
Lotería primitivas	37,7	40,7	34,8	12,7	35,1	49,1	37,5
Cupón ONCE	15,6	14,0	17,0	7,2	8,9	21,3	18,1
Máquinas «B»	5,7	9,9	1,9	13,3	8,2	3,2	2,8
Lotería instantánea (ONCE)	4,1	4,3	4,0	4,8	3,6	3,5	5,3
Quiniela de fútbol	4,0	7,6	0,6	3,0	6,4	3,0	3,8
Apuestas deportivas (presencial)	3,8	7,1	0,8	10,2	5,3	2,5	0,9
Apuestas deportivas (online)	2,3	4,0	0,8	9,6	2,5	0,7	0,6
Juego de cartas	2,0	3,5	0,6	4,2	4,3	0,9	—
Bingo	1,5	1,2	1,8	3,0	2,9	0,9	—
Póquer online	1,0	1,7	0,2	4,2	1,8	—	—
Juego de casino	0,9	1,7	0,2	3,6	1,1	0,5	—
Otros	0,8	1,0	0,5	3,6	0,4	0,7	0,3
Otros juegos online	0,7	1,2	0,2	2,4	1,1	—	0,3
Casas de juegos o salas de apuestas	0,4	0,9	—	2,4	0,4	—	—
Concursos	0,2	0,3	—	—	—	0,5	—
Apuestas hípcas	0,2	—	0,3	—	—	0,2	0,3

Hirugarren une batean, ausazko jokoei buruzko egungo eztabaidaren barruan funtsezkoa den gai bati buruz galdetu zaie euskal herritarrei: joko horiek gizarte-arazotzat hartzea. Gaiari buruzko diskurtso polarizatuen arabera, ausazko jokoak arriskutsuak izan daitezkeela uste dutenen ehuneko ezagutzea beharrezkoa da, zein neurri hartu behar diren jakiteko. Baiezko erantzuna da nagusi, % 68,7rekin. Hala, elkarrizketatutako hiru pertsonatik bik jolasa eta problematika lotzen zituzten, % 25ek kontra eta % 6,3k ez zuten inolako jarrerarik erantzuten (2. grafikoa).

Emaitzen aurrerapena

2. grafikoa. Azken 12 hilabeteetan egin dituzten ausazko jokoak, sexuaren eta adinaren arabera (%)



Datuak xehetasun handiagoz aztertuz gero, 3. taulak erakusten duen bezala, euskal gizartean joko arazo bat dela uste duten pertsonen ehunekoa nahiko antzekoa da emakumeen eta gizonen artean (% 70,1 eta % 67,2). Distantzia aurretik aurkeztutako kasuetan baino pixka bat handiagoa izan arren, txikiagoa izaten jarraitzen du. Alde hori areagotu egiten da erantzunak adin-tartearen arabera gurutzatzen direnean. Baiezko erantzunen kopuruari erreparatuz gero, dinamika desberdina sortzen da pertsona zaharrenen eta gainerakoien artean. 65 urtetik gorako pertsonen % 61,6rentzat joko arazo bat da; lau adin-tarteetako tasarik txikiena. Beste muturrean 30-44 urteko biztanleria dago, non ehunekoa % 74,1era igotzen den, hau da, ia 13 puntuko igoera.


3. taula. Ausazko jokoak arazo bat dira euskal gizartearentzat, sexuaren eta adinaren arabera (%)

	Sexua		Adin-taldea			
	Gizona	Emakumea	18-29 urte	30-44 urte	45-64 urte	65 urte baino gehiago
Bai	67,2	70,1	69,9	74,1	70,1	61,6
Ez	27,4	22,8	26,5	20,9	24,1	29,1
Ed/Ee	5,4	7,1	3,6	5,0	5,8	9,4

Emaitzen aurrerapena

Aurreko datua ezagutu ondoren, antzeko emaitza espero daiteke galdera jokoaren balorazioari buruzkoa denean. Herritar gehienek iritzi gutxiesgarria dute (txarra/oso txarra) (3. grafikoa). Hala ere, puntu horretan, aurrez aurreko jokoaren eta online jokoaren arteko ñabardurak egin beharko lirateke. Joko presentzialetan, pertsonen ehuneko handi bat (% 40,4) axolagabe mantentzen da azken horien aurrean, nahiz eta ehuneko altuena iritzi negatiboan izan (%45,9). Online jokoari dagokionez, aldiz, iritzi negatiboak % 64,1era igozen dira. Horrekin, diskurtso negatibo argia eta berezia antzematen da aurrez aurreko jokoaren eta online jokoaren artean. Posizio positiboek, bestalde, % 10 baino ez dute gaintitzen (modalitate presentzialaren kasuan bakarrik, % 13,2rekin). Azkenik, erantzun gabekoen ehunekoa % 0,5etik % 2,8ra bitartekoa da.

3. grafikoa. Euskal gizartearen iritzia zuzeneko jokoari eta online jokoari buruz (%)



Beste behin ere, erantzun berak sexuaren eta adinaren aldagaiekin gurutzatzeak emaitza desberdinak azaleratzen ditu. Aurrez aurreko jokoari dagokionez, gizonen iritzia (% 14,9) apur bat positiboagoa da emakumeena (% 11,7) baino, eta emakumeena, berriz, apur bat negatiboagoa (% 48,3 eta % 43,2, hurrenez hurren). Gauza bera gertatzen da adineko pertsonekin; izan ere, pertsona gazteenek baino gehiago balioesten dituzte ausazko jokoak onak edo oso onak direla. Hala ere, alde horiek ez dira estatistikoki esanguratsuak.

Emaitzen aurrerapena

4. taula. Joko presentzialari buruz euskal gizarteak duen iritzia, sexuaren eta adinaren arabera (%)

	Gizona	Emakumea	18-29 urte	30-44 urte	45-64 urte	65 urte baino gehiago
Buena/Muy buena	14,9	11,7	10,8	7,8	15,0	16,9
Indiferente	41,3	39,5	39,8	42,3	41,0	38,1
Mala/Muy mala	43,2	48,3	48,8	49,1	43,8	44,4
Ed/Ee	0,5	0,5	0,6	0,7	0,2	0,6

Bestalde, online jokoari buruzko iritzia homogeneoa da gizonen eta emakumeen artean, baina adinak alde esanguratsuak markatzen ditu (5. taula). Kasu horretan, gazteen artean handiagoa da gainerako kolektiboen aldean iritzi positiboa duten pertsonen ehunekoa, nahiz eta horiek ere axolagabeenak izan. Gainera, zenbat eta zaharrago, orduan eta handiagoa da iritzi negatiboa duten pertsonen ehunekoa. Muturren arteko distantzia 6 puntukoa da.

5. taula. Euskal gizartearen iritzia online jokoari buruz, sexuaren eta adinaren arabera (%)

	Gizona	Emakumea	18-29 urte	30-44 urte	45-64 urte	65 urte baino gehiago
Buena/Muy buena	8,1	6,4	9,6	5,0	8,1	7,2
Indiferente	28,2	23,6	30,5	29,9	26,5	19,1
Mala/Muy mala	61,2	66,9	59,9	63,3	64,5	66,3
Ed/Ee	2,5	3,1	—	1,8	0,9	7,5

Datu horiek 2019ko txostenean argitaratutakoen ildo berari jarraitzen diote; izan ere, txosten horretan, % 66,8k iritzi txarra edo oso txarra zuten ausazko jokoei buruz, eta % 84,4raino igo zen online jokoaren kasuan. Beraz, azken hiru urteetan ehunekoa murriztu bada ere, gehienek iritzi negatiboa dute oraindik, eta online modalitatean nabarmenagoa da honako jarrera.


Emaitzen aurrerapena

2.2. Jokoarekiko jarrerak

Bigarren multzo honetan, jarrerekin lotutako gaiak sartzen dira, batzuetan aurreiritziekin lotuta daudenak. Lehen puntu gisa, talde desberdinetan jokoaren maila/intentsitatearen pertzepzio subjektiboari buruz galdetu da. Hau da, gizonak eta emakumeek, edo gazteek eta adinekoek, ausazko jokoetan portaera-jarraibide desberdinak dituzten ala ez galdetu da.

Lehenengo kasuan, 4. grafikoan, sexuaren arabera bereizitako intentsitateari lotutako erantzunak jasotzen dira. Emaitzen arabera, badirudi gizonen presentzia handiagoa dela jokoan. Hala, biztanleen ia bi herenek (% 65,4) adierazi zuten gizonak zirela joko-intentsitate handiena zutenak. Aitzitik, emakumeen joko handiagoa dela adierazten dutenen indizea % 9ra jaisten da.

4. grafikoa. Esango nuke, euskal gizartean, gizonak eta emakumeak berdintzat jotzen dutela? (%)



Zehatzago, gizonak gehiago jotzen duten irudia handiagoa da gizonen artean, % 68,7raino. Bereizgarriena, dena den, emakumeen autopertzepzioa da. Emakumeen artean, apur bat handiagoa da emakumeak gehiago jotzen dutelako ustea (% 10,9, eta gizonak, aldiz, % 6,7). Azken ideia horrek gora egiten du adinak gora egin ahala, eta 65 urtetik gorako biztanleriaren % 16,2ra iristen da (6. taula), jokalaririk handienak gizonak direla uste dutenen aurkako dinamikan. Alderdi hori bitxia da analisisan sakontzeko.


Emaitzen aurrerapena

6. taula. Gizonek eta emakumeek berdin jokatzen dute? (sexuaren eta adinaren arabera %)

	Gizona	Emakumea	18-29 urte	30-44 urte	45-64 urte	65 urte baino gehiago
Sí, juegan por igual	24,60	26,70	13,60	17,70	35,60	25,70
No, los hombres juegan más	68,70	62,40	84,60	78,60	54,50	58,10
No, las mujeres juegan más	6,70	10,90	1,90	3,70	9,80	16,20

Bigarrenik, galdera adinaren araberako aldeetan zentratzen denean, emaitzak aldatu egiten dira, bi antzeko tartek agertuz. Gazteek gehiago jokatzen dutela uste dutenak % 37,4 dira, eta zaharrenek gehiago jokatzen dutela uste dutenak % 38,9. % 23,7k uste du berdin jokatzen duela (6. grafikoa).

5. grafikoa. Gazteek eta adineko pertsonak berdin jokatzen dute? (%)



Idea horiek berdin jarraitzen dute gizonen eta emakumeen artean, eta estatistikoki ez dago alde esanguratsurik; aurreko galderetan ikusitako eskema bera errepikatzen da. Aldiz, adinak jarrera desberdinak markatzen ditu, talde bakoitzak berak uste baitu gehien jokatzen duena dela (7. taula). Gazteenek uste dute gehien jokatzen dutenak direla kasuen % 47,2an, eta zaharrenek, berriz, % 29,6an. Aitzitik, 65 urtetik gorakoek uste dute gehien jokatzen dutenak direla (% 50,7), eta datu hori gero eta txikiagoa da (% 31,9).


Emaitzen aurrerapena

7. taula. Gazteek eta adineko pertsonak berdin jokatzen dute? (sexuaren eta adinaren arabera %)

	Gizona	Emakumea	18-29 urte	30-44 urte	45-64 urte	65 urte baino gehiago
Sí, juegan por igual	25,3	22,2	20,9	24,2	27,4	19,7
No, la juventud juega más	38,5	36,3	47,2	41,6	36,3	29,6
No, las personas de mayor edad juegan más	36,2	41,5	31,9	34,2	36,3	50,7

Beste batzuen artean, galdetutako azken gaia joko- eta apustu-aretoen kokapenari buruzko eztabaidari dagokio. Horretarako, hiru esparru aztertu dira: aretoak, kasinoak eta B makinak edo txanpon-makinak. Jarrera horiek askotarikoak dira, baina, oro har, urruntzeko neurrien aldeko joera dago, hau da, lokal eta makina mota horiek ikastetxeetatik urrun eta hiriguneetatik kanpo egotea. % 15 inguruk uste du debekatuta egon beharko luketela, eta % 5-8k uste du kokapena ez litzatekeela kontrolatu behar.

6. grafikoa. Non kokatu beharko lirateke zorizko jokorako lokalak? (%)



Txanpon makinaren kokapenari dagokionez, gizonen eta emakumeen antzeko jarrera dute, eta gehienek uste dute ikastetxeetatik urrun egon beharko luketela. Adin-taldearen arabera, gazteena da malguena gainerakoekin alderatuta (% 14,6), baina debekua

Eraitzen aurrerapena

aldeko portzentaje berean. Debekuaren aldeko pertsonen tasa % 18tik beherakoa da. Datu hori azken urtean jokatu ez duten pertsonen datua baino txikiagoa da.

8. taula. B makinaren kokapena sexuaren eta adinaren arabera (%)

	Sexua		Adin-taldea			
	Gizona	Emakumea	18-29 urte	30-44 urte	45-64 urte	65 urte baino gehiago
Deberían de poder ubicarse en cualquier parte, sin restricciones	8,6	7,0	14,6	9,4	6,3	4,5
Deberían estar lejos de los centros educativos	51,6	47,1	47,0	46,0	49,8	52,9
Deberían de localizarse en zonas de difícil acceso, fuera de los cascos urbanos	24,9	29,7	23,8	26,8	27,6	29,6
Los locales y máquinas de juego deberían de estar prohibidos	14,9	16,2	14,6	17,8	16,4	13,1

Azken hauen kokapenarekin gertatzen den bezala, gizonen eta emakumeen antzeko jarrera dute kasinoekin, sektore horrek bi establezimendu dituen Euskadin. Adinak erakusten du, berriz ere, gazteak direla laxoenak, eta adinekoak direla ikastetxeetatik eta hiriguneetatik gehien aldentzearen alde dituztenak.

9. taula. Kasinoaren kokapena sexuaren eta adinaren arabera (%)

	Sexua		Adin-taldea			
	Gizona	Emakumea	18-29 urte	30-44 urte	45-64 urte	65 urte baino gehiago
Deberían de poder ubicarse en cualquier parte, sin restricciones	6,1	4,4	10,3	7,2	4,2	2,2
Deberían estar lejos de los centros educativos	35,1	28,3	34,5	28,3	31,6	32,5
Deberían de localizarse en zonas de difícil acceso, fuera de los cascos urbanos	45,3	51,9	41,2	50,0	48,9	51,3
Los locales y máquinas de juego deberían de estar prohibidos	13,5	15,4	13,9	14,5	15,2	14,0



Emaitzen aurrerapena

Azkenik, joko-aretoen kokapenarekiko jarrerak, arau-aldaketen ondoren gaurkotasun handiko beste gai bat denak, aurreko bi kasuen ildo berari jarraitzen dio. Gazteen kolektiboak uste du, neurri handiagoan (% 10,3), ez duela mugarik egon behar kokapenean, baina gehienak ikastetxeetatik eta hiriguneetatik urruntzearen aldekoak dira. Debekuaren aldeko tasa aurreko bien antzekoa da, % 15 ingurukoa.

10. taula. Aretoen kokapena sexuaren eta adinaren arabera (%)

	Sexua		Adin-taldea			
	Gizona	Emakumea	18-29 urte	30-44 urte	45-64 urte	65 urte baino gehiago
Deberían de poder ubicarse en cualquier parte, sin restricciones	6,3	4,4	10,3	7,2	4,4	2,2
Deberían estar lejos de los centros educativos	42,5	35,7	43,0	33,7	40,5	39,5
Deberían de localizarse en zonas de difícil acceso, fuera de los cascos urbanos	37,2	44,0	32,1	43,8	39,8	43,6
Los locales y máquinas de juego deberían de estar prohibidos	14,0	16,0	14,5	15,2	15,2	14,6



3.

Fitxa teknikoa



Fitxa teknikoa

Errealizazioa: «Pertzepzio soziala eta jokoaren balorazioa Euskadin 2022» azterlana UPV/EHUko Soziologia eta Gizarte Lan Saileko lantaldeak egin du. Hauek dira kideak: Jonatan García Rabadán irakaslea, Iraide Fernández Aragón eta Julia Shershneva irakasleak eta Aidée Baranda Ortiz ikertzailea.

Landa-lana: 2022ko iraila eta urria bitartean galdeketa egituratu bidez aurrez aurre egindako banakako elkarrizketak.

Unibertsoa: Euskal Autonomia Erkidegoko 18 urte eta gehiagoko biztanleria.

Laginaren tamaina: 1.200 elkarrizketa, 400 Lurralde Historiko bakoitzean.

Laginaren diseinua: Polietapikoa eta autoponderatua, EUSTATen metodologiaren arabera, EAeko 37 udalerritan (6 Araban, 15 Bizkaian eta 16 Gipuzkoan) eta norbanakoen ausazko hautaketa, adin- eta sexu-kuoten arabera.

Lagin-errorea: % 95eko konfiantza-mailarako, eta $p = q = 0,5$ biztanleriaren gehieneko aldakortasuna kontuan hartuta, lagin-errorea \pm % 2,82 da lagin guztientzat.



JOKOAREN
EUSKAL BEHATOKIA
OBSERVATORIO VASCO
DEL JUEGO